

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Zerga Ogasunak 2010eko Errenta Kanpainako itzulketen % 92 egin du, 181 milioi eurotik gora

Orain arte erregistratutako 321.065 aitortpenen % 74 'itzultzea' egokitu da

Viernes, 24 de junio de 2011

Guztira, eta oraindik behin-behineko datuen arabera, gaur ostirala, ekainak 24, ixten den 2010 Errenta Kanpainan zehar 321.065 aitortpen erregistratu dira, nahiz eta 330.000 aitortpenetara iristea espero den. Erregistratutako aitortpenen % 74ren itzultzea egokitu da (237.565 aitortpen), eta gainerako 83.500 ordaintzea. Nafarroako Zerga Ogasunak itzulketen % 92 egin du jada (220.335 deklarataile), 181,2 milioi euro, guztira. 822,4 euro itzuli da batez beste.

Horiek dira gaur amaitzen den 2010eko Errenta Kanpainako behin-behineko datu batzuk. Kanpaina iragan apirilaren 7an hasi zen, eta orduan 255.968 zergadunari (kopuru guztiaren % 54) dagokion 187.363 aitortpen-proposamen bidali zitzaientzara, Nabarmendu behar da, proposamenen % 84 (164.106) zergadunek onartu dituztela, hau da, Nafarroako Zerga Ogasunak orain arte erregistratutako 321.065 aitortpenen % 51,1 da.

Apirilaren 7an ere aitortpenak Internetez aurkezteko epea zabaldu zen www.navarra.es webgunean. Kanpainaren behin-behineko balantzearen arabera, egun horretatik 44.393 aitortpen erregistratu dira Nafarroako Gobernuaren webgunean (kopuru guztiaren % 13,8).

Apirilaren 15ean kanpaina Ogasun bulegoetan eta erakunde laguntzaileetan ireki zenetik, guztira 109.873 aitortpen berezi egin dira (erregistratutako aitortpen guztien % 34,2). Kopuru horretatik 28.893 Ogasuneko 6 bulegoetan egin dira, eta haietan 73 pertsona izan da jendea hartzen; 80.980. berriz, 22 finantza-erakunde laguntzailearen bidez, 1.300 puntu baino gehiago eskaini dituztenak. Azkenik, 2010eko Errenta Kanpainan guztira erregistratutako 321.065 aitortpenetatik 2.693 eskuz egindakoak izan dira.



Miranda lehendakariordeak eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari-gerente Jose Ignacio Perez de Albenizek Iruñeko Ogasuneko bulegoa bisitatu zuten.

348.000 sarreratik gora izan dira Kanpainaren webgunean

2010eko Errenta Kanpainarako Nafarroako Atarian ireki den webgune zehatzak 348.000 sarrera baino gehiago izan ditu, iaz baino % 12 gehiago. Guztira, 129.000 pertsona sartu dira bertan. Herritarrek gehien eskatutako zerbitzuak "Aitorpena inprimatu" aplikazioa izan da 43.000 sarrera baino gehiagorekin; ondoren, datu fiskalak kontsultatzeko aplikazioa 35.5000 erabiltzaile baino gehiagorekin eta "Aitorpena egitea" aplikazioa, 25.500 erabiltzaile baino gehiagorekin.

Herritarren onarpen eta adostasun maila handia

Kanpainaren zerbitzuarekiko adostasun-maila neurtzeko eta hobetzeko aukerak topatzeko Ogasunak 625 herritarrei egindako telefono-inkestari dagokionez, emaitzek adierazten dute zergadunen % 95 "pozik" edo "oso pozik" dagoela 2010eko Errenta Kanpainarekin eta % 4k bakarrik dio "ez dagoela pozik". Gainera, inkestatutako zergadunen 10etik 8ri gustatuko litzaioke datorren urtean errenta-aitorpenaren proposamena bere etxean jasotzea.

Era baikorrenean baloratutako alderdiak dira: jasotako tratua, 10etik 9ko puntuazioa jasoz, bai eta arretaren arintasuna, erosotasuna eta kalitatea ere Ogasun bulegoetan nahiz erakunde laguntzaileetan. Zergadunaren adostasun-azterketak ere jasotzen du, 4 herritarretatik 3k Ogasunaren webgunearen berri dutela, eta haien % 29k erabili duela. Balorazio handieneko alderdiak dira: informazioa, erabilgarritasuna, hitzordua lortzeko arintasuna eta edukien argitasuna